




PROBAREN ARAUAK

ZORNOTZAKO KORRIKALARIAK Atletismo Klubak Zornotzako Jai Lasterketaren XIII. Edizioa antolatu du. 2024ko uztailaren 14an egingo da, 10:00etan. Probaren ibilbideak **8 km** ditu, 2 bira eman beharko baitira 4 km-ko zirkuitu batean, asfalto eta lur gainean. **8 km-ko lasterketan parte hartzeko gehieneko kupoa dago; guztira, 125 atleta, gehienez ere.**

1. Izena ematea

Izena emateko, 5 euro ordaindu beharko da. Internet bidez eginez gero, <https://sportmaniacs.com> helbidean, 2024ko ekainaren 3etik 2024ko uztailaren 12ra bitartean (23:59ra arte). Alderantziz, lasterketa egunean in situ eginez gero, proba hasi baino 30 minutu lehenagora arte egin ahal izango da izen-ematea; betiere, dortsalik gelditzen baldin bada. Izena emanda egon arren azkenean parte hartu ezin duten pertsonen ez zaie dortsalaren prezioa itzuliko.

2. Dortsalak jasotzea

Dortsalak lasterketaren egunean bertan banatuko dira Zubiondo parkean, irteerako/helmugako arkuaren ondoan, proba hasi baino 30 minutu lehenagora arte.

3. Kategoriak

35 urtetik beherakoen kategoria: 1989 (34 urte) eta 2005 (18 urte) urteen artean jaioetakoak.

35-55 urte bitartekoen kategoria: 1969an (55 urte) eta 1988an (35 urte) jaioetakoak.

55 urtetik gorakoen kategoria: 1968an (56 urte) eta aurrekoetan jaioetakoak.

Herrikoen kategoria: Zornotzan bizi diren eta 2005ean (18 urte) eta aurreko urteetan jaio diren atletak.

4. Dortsalak

Dortsala aurreko aldean jarri beharko da, ondo ikusteko moduan.

5. Denboren kontrola

Probaren kronometrajea txip elektroniko bidez egingo da, dortsalean integratuta. Ez da onartuko txipa/dortsala galtzeagatik erreklamaziorik.

Erakundeak erabaki du proba osatzen duten bi urratsetako lehena 25 minutu baino lehen egin beharko dela, probaren irteeratik hasita. Erritmoa: 6'15"/km.

Erakundeak, ondorengo proben ordutegiari eusteko, ibilbidea laburtzeko aukera izango du zirkuitura egiten ari diren bigarren itzuleran aurreikusitako erritmoa motelago egiten ari diren parte-hartzaileentzat.

Erakundearen asmo nagusia parte hartzen duen kirolari orok proba amaitzea da.

6. Segurtasuna

Parte-hartzaile batek istripua izanez gero, bertan dagoena derrigortuta egongo da laguntza ematera, ahal duen neurrian. Erakundeak proba behar bezala egiten dela zainduko du, eta boluntarioen laguntza izango du ibilbidean zehar eta Gurutze Gorriarena helmugan.

7. Ibilbidea

Beharrezkoa izanez gero, erakundeak ibilbidea aldatzeko eskubidea izango du.

8. Irteera

Irteera Zubiondo parkean izango da, 10:00etan, kategoria guztietarako.

9. Anoa

Helmugan anoa gunea egongo da, eta bertan, likidoak eta solidoak hartu ahal izango dituzte parte-hartzaileek.

10. Sailkapenak

Sailkapenak <https://sportmaniacs.com> helbidean agertuko dira, probaren egun berean.

11. Trofeoak

Kategoria bakoitzeko lehenengo hiru sailkatuek jasoko dute saria, gizonetakoek zein emakumeetakoek.

12. Erantzukizunak

Probaren aurretik, proban bertan eta ondoren ere parte-hartzaileei edo ikusleei gerta dakizkiekeen kalte fisiko, moral edo materialen gaineko erantzukizun oro ukatzen du antolakuntzak.

14. Irudi-eskubideak

1. Proban parte hartzen duten guztiek onartzen dute erakundeak haien irudia publizitaterako, karteletarako eta gainerako publizitate-elementuetarako erabili ahal

izatea proban eta probaren etorkizuneko edizioetan, bai eta webgunean, Facebooken, Instagram, TikTok eta abarretan ere.

2. Norbaitek ez badu nahi bere irudia erabiltzea, erakundearekin harremanetan jarri beharko du, helbide honetara idatzita: zornotzakokorrikalariak@gmail.com.